

Kutxabankek 600 eurorainoko pizgarria eskaintzen du nomina berriak helbideratzeagatik

- **2.500 euro edo gehiagoko helbideraketek 400 euroko ordainketa edo 600 euroko hobaria jaso dezakete KutxabankStoren erabiltzeko**
- **Milioi bat bezero pribatuk bezala, ez dute komisiorik ordaindu beharko kontuak eta txartelak mantentzeagatik, gutxieneko lotura-baldintza batzuekin**

2024ko abuztuaren 29an. Kutxabankek asmo handiko kanpaina du zabalik nomina berrien helbideratzeak sustatzeko, bezeroekiko hurbiltasuna eta harremana estutzen jarraitzearekin batera. Kontutan hartzekoa da, izan ere, gaur egun Euskadin helbideratuta dauden nomina guztien % 40 inguru Kutxabanken daudela.

Zehazki, Kutxabankek **400 euro garbiko** ordainketa edo KutxabankStoren truka daitekeen **600 euroko bonua** lortzeko aukera proposatzen du, baldin eta hilean **2.500 eurora** iristen bada helbideratutako nomina berria.

Hilean **800 eurotik** gorako nominak eramanez gero, ordainketa bakarra **200 eurokoa** izango da, eta finantza Taldearen merkataritza elektronikoko atarian erabil daitekeen hobaria **300 eurokoa** izango da. Bi kasuetan, helbideratzeak **irailaren 30a** baino lehen egin beharko dira eta gutxieneko iraupen-epeak 36 hilabetekoa izan beharko du.

Kutxabankera nominak eramatearen beste abantailetako bat kontuak eta ordainketa-txartelak **inolako komisiorik ordaindu beharrik gabe** mantentzeko aukera da. Milioi bat bezero baino gehiagok dagoeneko abantaila hori daukate 2024. urtearen hasieratik, eta horri esker, kontuak eta Visa Dual txartelak doan dauzkate, eta inolako kosturik gabe egin ditzakete online transferentziak eta txeke nazionaletako sarrerak.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilen eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.